



Auzo lapurraren istorioa

Auzo lapurraren istorioa

صلللا راجلا ةصق

Egileak

Kontakizuna: **Nadia Kerdi**

Herrialdea: **Frenda, Aljeria**

Hizkuntza: **Arabiera**

Ilustrazioak: **Sabrina Romero Marcos**

قصة الجار اللص

كان يا مكان في قديم الزمان رجلا أعمى يسكن في قرية فقيرة، وكانت ظروفه المادية ليست متيسرة، وكان يتاجر، فرزقه الله مالا كثيرا فجلس بذلك المال في حديقته تحت شجرة يحبها فقرّر أن يخبئ المال تحتها، وبالفعل حفر حفرة وخبئ المال تحت تلك الشجرة، ومرت أيام ليست بكثيرة وإذا به يتفقد المال فلم يجده فجلس يفكر في من يمكنه أن يسرق ذلك المال، فتيقن أنه جاره اللص فهو له عدة سوابق في القرية، وقال ربما رأي وأنا أخبئه تحت تلك الشجرة، فقرّر الذهاب إليه، وبالفعل ذهب إليه وقال له جنتك مستشيرا فقال له قل أمرك، فقال له الأعمى أن معي مالا كثيرا ولا أعرف أخبئه في مكان ما أم أعطيه لأحد؟، فقال له جاره اللص من الأفضل أن تخبئه في مكان ما في المنزل ففي هذه الأيام لا يؤتمن أحد، فشكره الأعمى على نصيحته وقال له في المغيب سوف أخبئ المال، فذهب اللص ليعيد المال الذي سرقه منه ووضعه مكانه ظنا منه أنه سوف يخبئ الأعمى المال في نفس المكان، وظل اللص يراقب الأعمى حتى حفر، وكان اللص يعتقد أن الأعمى يخبئ المال الجديد ولكن تلك كانت حيلة من الأعمى حتى يعيد ماله، فذهب اللص في الليل وحفر ليخرج المال ولكنه لم يجد المال، ولكنه وجد ورقة مكتوب عليها " الله يراك فكيف تحب الله أن يراك؟".

Behinola herri txiro batetan gizon itsu bat bizi zen.
Estu eta larri moldatzen zen bizimodua ateratzeko.
Denda txiki bat zeukan. Jainkoak bedeinkatu egin
zuen hari diru pixka bat emanda.






Lorategiko zuhaitzik kuttunenaren pean eseri zen, dirua eskuetan zuela. Zuhaitzaren ipurdian ezkutatzea erabaki zuen. Zuloa egin eta bertan sartu zuen.







Handik egun batzuetara diruaz akordatuta begiratzera joan eta dirua falta zen. Handik ostu zuena zein izan zitekeen pentsatzen hasi zen. Auzotar bat etorri zitzaion burura, herrian lapur ospea ondo irabazia zeukana. Iritzi eske berarengana joatea bururatu zitzaion.



Diru mordoxka zeukala esan zion, eta ez zekiela zer egin, ezkutatu edo norbaiti opari eman. Auzokideak esan zion onena etxean ezkutatzea izango zuela, hori zela seguruena. Aholkuagatik eskerrak ematearekin batera aipatu zion iluntzean ezkutatuko zituela diruak.



Lapurra aurretik harrapatutako dirua zuloan uztera joan zen, itsuak
juzku txarrik egin ez zezan, eta lehengoaz gainera orain diru gehiago
ere gordeko zuela pentsatuta.



Baina hori guztia, lapurrak dirua itzul zezan itsuak asmatutako amarru bat besterik ez zen izan.





Gauez, lapurra berriro zuloan begiratzera joan zenean aurkitu zuen gauza bakarra mezu idatzi hau izan zen: *ni itsua naiz eta ez zaitut ikusten, baina Jainkoak bai; ez duzu ba nahiko Jainkoak zu ez ikustea?*





Aurkibidea

- 01- Paleshuki eta Paleviki
- 02- Taro Urashima
- 03- Ez dago etorkizunik eta ihes egiteko ordua da
- 04- Txakurra saltoka
- 05- Gabonetako gutuna
- 06- Coquenaren kondaira
- 07- Itsasoaren aurrean etzunik
- 08- Auzo lapurraren istorioa**
- 09- Otoitza aberriaren alde
- 10- Saci Perere

Lege Gordailua
D 01576-2021



Azpeitia
Denontzat

Kulturaz
Azpeitiko Kultur Kooperatiba



Dendari itsu bat eta haren bizilagun lapurraren artekoak kontatzen ditu Aljeriako herri-ipuin honek. Diru batzuen jabe egin da dendaria, baina laster ostu egingo dizkiote. Korapiloa nola askatzen den eta, bide batez, ikusi ezin duenaren itsutasuna baino handiagoak badirela ikasiko dugu.

